



3. DOKUMENTUA

BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO SANEAMENDU- LABORATEGIRAKO MATERIAL SUNTSIKORRA HORNITZEA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. AGIRIAREN XEDEA

Kondizio-agiriaren xedea hauxe da: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Saneamendu Laborategirako Material Suntsikorraren hornidura kontratatzea, bai eta hornidura horretarako kontratuak bete beharreko kondizio teknikoak ezartzea eta kontratistak hori behar bezala gauzatuko dela bermatzeko dituen konpromisoen irismena zehaztea ere.

2. HORNIGAIA NON EMAN BEHAR ZAIGUN

I. eranskinean zehaztutako hornigaiak (erreaktibo kimikoak, beira-materiala, plastikoa, mikrobiologia-materiala, iragazte-materiala eta askotariko material espezifikoak) Galindoko (Sestao) HUAko Saneamendu Laborategian egin beharko dira.

Garraiatzeko sistemak ziurtatu beharko du produktuetan eta haien ontzietan ez dela narriadurarik gertatzen. Hoztuta egon beharreko produktuak badira, hozkailu eramangarrietan —hotz-metagailuak edo antzekoak barne— garraiatuko dira une oro, hotz-kateari eustea bermatzeko. Era berean, horren berri emango dute laborategian entregatzean, hozkailu batean berehala sar ditzaten. Bidalketa-kondizio horien kostuak hornitzailearen kontura joango dira.

Enpresa adjudikaziodunak etengabeko hornikuntza bermatu beharko du kontratua egiteko denbora osoan, baita oporraldian ere.

Orokorrean, 1. eranskineko edozein materialek gehienez zazpi (7) egun naturaleko epea izan beharko du entregatzeko, eskaera jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Entrega-epe hori ezin bada bete, kontratistak atzerapenaren arrazoiak berri eman beharko dio Partzuergoari, eta epe berria jakinarazi. Behin Partzuergoak onartu ondoren, kontratu-izaera izango du eskaera horrek, eta zigorrak aplikatu ahaliko zaizkio adostutako epea ez badu betetzen.

3. HORNIGAIEI ESKATZEN ZAIZKIEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Produktuen deskribapena eta ezaugarri teknikoak orokorrean daude zehaztuta **I. eranskinean**, bertan ageri baitira kalitateak eta urteko kontsumo estimatuak. Taula horiek berek erabili beharko dira kontratistek prezioen taulak bete ditzaten.



Hona hemen zehaztuta material suntsikorren zenbait produktu sorta, haien espezifikotasuna oinarri hartuta:

1. SORTA: Erreaktibo kimikoak eta erreferentziako materialak
2. SORTA: Beirazko eta plastikozko materiala
3. SORTA: Askotariko material espezifikoa
4. SORTA: Iragazteko materiala
5. SORTA: HACH testeko kubeten materiala

Sorta bakoitza lizitatzailer bati adjudikatu ahalko zaio, independentzia osoz.

1. sortari dagokionez (Erreaktibo kimikoak eta erreferentzia-materialak), zerrendan **MR** marka duten artikulak nahitaez eskaini beharko dira azaldutako marka eta erreferentziarekin; izan ere, metodo analitikoaren balidazioak erreferentziako material horietarako egin dira, eta haiek erabili behar dira, beraz, ENACek laborategia egiaztatze betekizunak betetzeko, laborategiaren gaitasun teknikoa bermatze aldera.

5. sortari dagokionez (HACH test kubeten materiala), zerrendan zehaztutako artikulak nahitaez eskaini beharko dira azaldutako marka eta erreferentziarekin; izan ere, test kubetak erabiltzen diren metodo analitikoak material horrekin balidatu eta egiaztatu dira.

Erreferentziako materialen eta test kubeten materialaren zerrenda lizitazioa aurkeztu baino lehen, materialen ordezkotza aukerak aurkez daitezke, ontzat eman daitezke. Lizitazioaren zerrendako materiala deskatalogatuta dagoela frogatu beharko da, baita berriaren baliokidetasuna eta kalitate bereko edo handiagoko materiala dela ere.

1. sortako gainerako erreaktibo kimikoak lizitazioaren aurretik baliokidetasuna frogatzeko moduko produktuekin eskaini ahalko dituzte, betiere kalitate bereko edo handiagoko produktuak badira, eta arreta berezia jarrita analisi berezietarako behar diren produktuetan. Irizpide bera aplikatzen da 4. sortarako (Iragazte-materiala). Kasu horietan, proposatutako marka eta erreferentzia berriak prezio unitarioen taulan jasoko dira, eta, era berean, memoria teknikoan informazioa emango dute, haren kalitatea eskatutako produktuarena bezalakoa edo handiagoa dela egiaztatze.

2. eta 3. sorten zerrendetan adierazitako gainerako artikuluetarako, ordezkotza aukerak eskainiz gero, haien baliokidetasuna frogatu beharko da, betiere kalitate bereko edo handiagoko produktuak badira.

Atal horretako eskakizunak ez betetzea eskaintza teknikitik baztertzeko arrazoia izango da.

4.- HORNIGAIEI ESKATZEN ZAIZKIEN KONDIZIOAK

Eskaintzak item guztiak jaso beharko ditu (produktuak) —alegia, eranskinetako zerrendan ezarritakoak—, balorazio ekonomikoak irizpide homogeenak erabili daitezke, eta baztertu egingo dira azaldutako produktuetakoren bat ez duten eskaintzak.

Gutxieneko betekizun horiek dokumentatu eta aurkeztu beharko dira dokumentazio teknikoaren



karta-azalean, Partzuergoak egiaztatu eta balidatzeko, eta ez da inola ere datu ekonomikorik agertuko.

5.- KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak ondorio guztietarako ordezkatzeko duen ordezkaria izendatu eta proposatu behar du memoria teknikoan (5. artikulua).

6.- HORNIGAIAK JASOTZEA

Garraio-eragiketa guztiak hornitzailearen kontura izango dira.

Albaranak aurkeztuko dituzte salgaiak entregatzeko unean edo, bestela, enbalajearen kanpoko aldean egongo dira, ageriko tokian.

Materiala berrikusi egingo da jasotzeko unean bertan, eta Partzuergoak eskubidea izango du materiala itzultzeko eskatutako zehaztapenak betetzen ez baditu, edo akastuna bada. Enpresa adjudikaziodunak behar diren bitartekoak jarriko ditu, inolako kargu gehigarriarik gabe, akatsa zuzentzeko.

Galindo, 2025eko irailaren 23a

Kontratuaren arduraduna

Sin: Francisco Hernani

Laborategiko zuzendariordea

Sin.: Elena Aspichueta